Zigilu elektronikoarekin sinatutako dokumentua (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar) / Documento firmado con el sello electrónico (Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar)

EIBARKO IKASTETXEETAKO ESKOLAKO IGERIKETA KANPAINARAKO GARRAIO ZERBITZUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Eibarko ikastetxeetako ikasleak Ipurua eta Orbea kiroldegietara autobusez garraiatzeko zerbitzua ematea.

2.- ZERBITZUA EMATEKO EGUTEGIA

Zerbitzua honako egun hauetan emango da:

Astelehenetik ostiralera, lanegunetan, eta adjudikaziodunari gutxienez hilabete bateko aurrerapenarekin jakinaraziko zaion eskola-egutegiko egunetan. Lehen zerbitzua 2026ko irailaren 15ean izango da, eta azkena 2027ko ekainaren 11n.

3.- ADJUDIKAZIODUNAREN OBLIGAZIOAK

Zerbitzua eskaintzen duen autobusak gutxienez 36 plaza + gidaria izan beharko ditu. Kontratua gauzatzeko erabiliko den autobusak bidaiarien segurtasunaren arloan indarrean dagoen araudia beteko du, eta zerbitzu horiek betetzeko beharrezkoak diren eta indarrean dauden zirkulazio-baimen guztiak izango ditu. Ibilgailuak irisgarria izan behar du mugikortasun murriztua duten pertsonak garraitzeko (gurpil-aulkia eduki ala ez).

Adjudikaziodunak komunikazio-kanal bat eduki beharko du erabiltzaileekin, zalantzak eta kontsultak jasotzeko; gutxienez, telefono-zenbaki bat eta erabiltzailearen arretarako helbide elektroniko bat jarriko ditu eskura.

4.- HIZKUNTZA BALDINTZAK

Zerbitzua eman behar duten autobus-gidariek gaitasuna izango dute erabiltzaileei euskaraz eta gaztelaniaz arreta emateko. Umeekin eta gazteekin euskaraz egingo da beti. Autobusean edo geltokietan jartzen diren jarraibide eta ohar orokorrak euskaraz izango dira, mezuak ezagunak eta ulergarriak direnean. Ezinezkoa denean, ele bietan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **bcade5f253188c1f0cb379fc6dcca23bc681d9f9** Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202600004076** **https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do**	
Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
YURI EGAÑA OLANO	**27/07/2026 11:14:50**